# BIDEA EGINEZ

**11.ATALA** 2015 / OTSAILA

EAJ PNV AZKOITIA

“Herritarrak kokoteraino daude politikarien demagogiaz, ustelkeriaz, arduragabekeriaz, diskurtso interesatuez... Gobernugintzan egoteak ez du harrotzeko arrazoirik ematen.
Hala da. Baina denok hobeto bizi nahi badugu, norbaitek egin behar du ahalegina.”

“Muchos se me acercan para darme ánimos. Pero también hay quien se me ha acercado para quejarse. La mayoría critica la dejadez actual. Muchos ven cierto abandono. Los azkoitiarras quieren un municipio ordenado, limpio, dotado de buenos servicios y agradable. Y yo también.”

“Eta udalaren lehentasunetako bat izan behar du ahal den neurrian ekonomia eta enpleguaren alde egin dezakeena egitea. Esaterako, hizkuntzekin sekulako arazoa dugu eta bada ordua Udalak hor eskua sartzeko.”

“Un proyecto que queremos sacar adelante es la apertura de una Escuela Oficial de Idiomas en Azkoitia para toda la comarca. La primera respuesta por parte del departamento de Educación es muy positiva y esperanzadora y no vamos a desaprovechar la oportunidad.”

“Ez da ezer egin Idiakez-Ederra Etxearen kontuarekin. Gu jabe guztiekin harremanetan jartzen hasiak gara. Udalak arduraz bere gain hartzen ez badu gaia, andamio horiek betirako hor geratuko dira.”

“Tenemos a azkoitiarras que no pueden salir de sus pisos porque no tienen ascensor; personas mayores que estarían bien alimentadas, aseadas y protegidas en pisos tutelados también; tenemos que rentabilizar los locales desocupados… Y ¿Por qué no un espacio de coworking para freelances? Queremos todo eso.”

“Azkoitia-Zumarraga errepidea konpontzea gure lehentasunetako bat da, dudarik gabe. Aurreko legealdian, eta partaidetza prozesu zabal baten ostean, proiektuaren erredakzio lana egina geratu zen eta ez da ezer egin oraindik.”



**JAVIER ZUBIZARRETA**
Udal Hauteskundeetako
Azkoitiko EAJren
**alkategai independentea**

## HERRIAREN ALDE LAN EGITEKO PREST

Bere denbora hartu zuen pentsatzeko, baina baiezkoa eman zuen EAJtik datorren hauteskundeetarako alkategai aurkeztu nahi ote zuen galdetutakoan. Alderdiak balore argiak ikusten zizkion: herrian ezaguna eta kudeaketan eskarmentu handikoa. Independentea, herrigintzara datorrela dio.
**“Eta horri politika deitzen badiogu, politika beste modu batera egitera nator”.**

JAKIN BADAKI DAGOENEKO ZEINTZUK IZANGO DITUEN TALDE-KIDE ETA IRITSIKO DA AURKEZTEKO ORDUA. ORAIN, DENEN ARTEAN, PROGRAMAREN ZIRRIBORROA LANTZEN ARI DIRA, HERRITARRENTZAT PENTSATURIKO HERRIAREN ETORKIZUNA MARRAZTEN.



**Azkoitiarrek zer eskatzen die alkategai bati?**
Ez zaizkit denak eskean hurbiltzen. Asko animoak emateko hurbiltzen zaizkit. Baina kexatuz ere etorri zaizkit eta gehienek oraingo utzikeria kritikatzen dute. Herri utzia ikusten dute askok. Herri ordenatua, txukuna, zerbitzuz ondo hornitua eta atsegina nahi dute herritarrek. Eta baita nik ere.

**Utzikeriak badu aurrekontuekin zerikusirik?**
Uste dut , batik bat, kudeaketa txukun batek lanarekin eta lanari jartzen zaion pasioarekin duela zerikusia. Edozer gauza aurrera ateratzeko, grina behar da, eta zergatik ez esan, egoskorkeria apur bat ere bai.

Herritarrak kokoteraino daude politikarien demagogiaz, ustelkeriaz, arduragabekeriaz, diskurtso interesatuez... Gobernugintzan egoteak ez du harrotzeko arrazoirik ematen.
Hala da. Baina denok hobeto bizi nahi badugu, norbaitek egin behar du ahalegina. Zer gertatzen da etxean inork erratzik pasatzen ez badu edo erretako bonbila inork aldatzen ez badu? Eta ahaleginerako borondateak barrutik atera behar du, 24 orduko lana delako udaletxekoa. Nik herri bat hobetzeko lanean fin ari direnetan sinesten dut. Egia da ez direla titularretan azaltzen, baina herri mailako politikan jende konprometitua dagoenaren duda izpirik ez dut. Edozein antolakuntzatan bezala, etika, solidaritatea eta sen ona aldarrikatu behar ditugu.

**Egindako inkesten arabera, azken 50 urteetan gero eta hobetoago bizitzen joan gara eta orain, lehenengo aldiz, joera hori kolokan jartzen ari da.**
Mileuristak ez, seiehuneuristak direla asko eta asko esaten ari zaizkigute. Horren aurrean zer? Udaletxe batek ekonomian duen eragina mugatua dela badakigu. Baina hainbat lan ildo jorra daitezke. Batetik, erakundeak, formakuntza zentroak eta enpresak bat egin behar dugu, elkarri lehiakorragoak izaten lagunduz. Berrikuntza munduan zehar salduko den produktuetan eraldatu behar da eta horretan formakuntza zentroek asko lagundu dezakete. Gainera, jendea prestatu behar dugu, lehenengo, bertako enpresak hornitzeko. Hemen industriatik bizi gara eta ezin gara lokartu. Bestetik, epe luzera ere begiratu behar dugu. Egun, Azkoitian badago tokia etorri nahi duten enpresentzat. Hemen dago, adibidez, Bernardo Ecenarro eta ez da kasualitatea. Beraz, eragina mugatua da, baina oso garrantzitsua. Eta udalaren lehentasunetako bat izan behar du ahal den neurrian ekonomia eta enpleguaren alde egin dezakeena egitea. Esaterako, hizkuntzekin sekulako arazoa dugu eta bada ordua Udalak hor eskua sartzeko.

**“Asko animoak emateko hurbiltzen zaizkit. Baina kexatuz ere etorri zaizkit eta gehienek oraingo utzikeria kritikatzen dute.”**

**Zer egin dezake Udalak jendeak ingelesa menpera dezan?**
Ingelera, arabieran, txinera... eskaeraren araberakoa izan beharko du eskaintzak. Lantzen ari gara gaia eta dagoeneko harremanetan gaude Eusko Jaurlaritzako arduradunekin eta aurrera atera dezakegun proiektu bat da Hizkuntza Eskola jartzea Azkoitian, bailara osoari zuzenduta. Hezkuntza sailak eman digun lehenengo erantzuna oso positiboa eta itxaropentsua da eta gogotik helduko diogu. Haurrak akademietara joaten dira baina adinean eta mailan aurrera doazen heinean, zailtasunak areagotzen joaten dira. Erraztasunak eman behar dira hizkuntzak ikasteko, gaur egun, lana bilatzeko ezinbesteko baldintza delako. Ez dago besterik. Eta lanak diruaz gain, duintasuna eta garapen pertsonalerako aukerak ematen dizkigu.

**Aurreratu dezakezun beste proiekturik?**
Lanean ari gara. Diagnosiak, lehentasunak, proiektuak, nahiak eta baliabideak koadro batean jarri behar dira, benetan, bakoitzaren bideragarritasuna aztertzeko. Egiteko gauza asko dago. Noski, bakoitzak bere beharrei erreparatzen die. Igogailurik gabe etxetik atera ezinean dauden azkoitiarrak baditugu; pisu tutelatuetan behar bezala elikatu, jantzi, garbitu eta zainduta egongo liratekeen pertsona helduak ere bai; lokal hutsei errentagarritasuna ateratzea ere ondo legoke… Zergatik ez freelancentzat coworking gune bat ere? Hori da guk nahi duguna.

**Udalak Musika Eskola egon den eraikinean Eguneko Zentroa eraikitzeko proiektuaren erredakzioa esleitu du. Zer irizten diozu?**
Primeran ikusten dut Eguneko Zentroa herri-gunera ekarri nahi izatea. Baina hauteskundeetarako hilabete gutxi falta dira eta erabakia presaka hartu denaren sentsazioa dut. Arinegi. Gu ere egon gara San Jose egoitzako arduradunekin zer behar dituzten aztertzeko. Eguneko Zentroa herrira ekartzeak baino premia handiagoa duela diote unitate psiko-geriatrikoa eraikitzea ondoan duten mojen etxean. Eguneko Zentroko erabiltzaileen profila menpekotasun handikoa da eta ibilgailuz egiten dute joan-etorria.Gainera, ez dute bisitarik izaten. Eguneko Zentro batean, legez, bakarrik laguntzaileak egoten dira. Sendagilea eta erizaina dituzte San Jose egoitzan. Janaria jaisteko ere ibilgailu berezi bat beharko litzateke.

Eguneko Zentroa inguruko herrietako erabiltzaileekin betetzen da gaur egun. Aldiz, bai egoitzako eta bai egungo unitate psikogeriatrikoko plaza guztiak beteta daude. Horrek ez du esan nahi etorkizunean Eguneko Zentroa handitu beharko ez denik.

Baina alderdi guztiak aztertu behar dira. Esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko du beste mediku eta erizain baten zerbitzua herrian? Ezin ditugu zerbitzuak bikoiztu. Uste dut azterketa sakonago bat egin behar dela eta ikusi pertsona nagusientzat zeintzuk diren beharrak. Zer egingo da pisu tutelatuekin? Egoitzarekin? Etxez-etxeko laguntzekin? Diagnosi bat falta da hor. Hauteskunde aurreko izerdiek eraginda azaldu du oraingo Udalak zer asmo duen Eguneko Zentroarekin eta horregatik diot beharbada ez dela zuzenena nahiz eta helburua bera ona izan.

**“Lantzen ari gara gaia eta dagoeneko harremanetan gaude Eusko Jaurlaritzako arduradunekin eta aurrera atera dezakegun proiektu bat da Hizkuntza Eskola jartzea Azkoitian, bailara osoari zuzenduta.”**

**EAJk Musika Eskola zegoen eraikinerako badu proiektu propiorik?**
Gure proiektua da Musika Eskola zegoen tokian Hizkuntza Eskola jartzea. Edonola ere, badira beste eraikin batzuk guk bultzatuko dugun Hizkuntza Eskola kokatzeko, esaterako, Kultur-Etxea edo Idiakez-Ederra Etxea.

**Idiakez-Ederra Etxearekin zer ari da gertatzen?**
Ez da ezer egin Idiakez-Ederra Etxearen kontuarekin. Gu jabe guztiekin harremanetan jartzen hasiak gara. Udalak arduraz bere gain hartzen ez badu gaia, andamio horiek betirako hor geratuko dira. Kontua nola dagoen eta zer egin daiteken ikusteko Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondare zuzendaritzarekin ere egon gara dagoeneko. Udalarena izatera heltzen bada, funtzio soziala eman behar zaio eraikinari. Oso toki ona da gauza askotarako. Baina aurretik gai honi gogotik heldu eta desblokeatuta utzi behar da eta horretan ari gara.

**Markel Olano bisitan etorritakoan, Aizpurutxora eraman zenuen errepidea nola dagoen ikus zezan.**
Azkoitia-Zumarraga errepidea konpontzea gure lehentasunetako bat da, dudarik gabe. Aurreko legealdian, eta partaidetza prozesu zabal baten ostean, proiektuaren erredakzio lana egina geratu zen eta ez da ezer egin oraindik. Azkoitiarrontzat sekulako garrantzia du horrek, batetik, ospitalera joateko egin beharreko bidea delako, baina baita AHTren geltokia Ezkio-Itsason eraikitzen ari direlako ere. Eta nola ez, N-1 eta AP-1ekin lotzen gaituelako.

Errepideez ari garela, garraio publikoarena da konpondu beharreko beste gai bat. Herri bat ondo komunikatuta egotea ezinbestekoa da, bai herritarren egunerokotasunerako eta baita biztanleria mantentzeko ere.

**Herri askotan bilerak egin dira aurrekontuak zertara bideratu bozkatzeko eta EAJko beste hautagai batzuk ere bilerak egiten ari dira herritarrekin. Azkoitian azkoitiarrekin ari zarete kontatzen?**
Bai. Batzuekin eta besteekin biltzen ari gara. Guk ezer proposatu aurretik zer nahi duten azkoitiarrek jakiteko. Edonola ere, elkarrizketa hau aprobetxatu nahi dut ateak eta besoak zabalik ditugula esateko.

**Herritarren eskaeretako bat parke estalia da eta aurrekontuetan aurreikusten da.**
Gune bat estaltzeko partida aurreikusten da. Ez dakiguna da zer eduki emango zaion gune horri. Haurrentzat jolasak jarriko dira? Helduek ariketak egiteko gailuak? Zer egingo da gune estali horrekin? Hor dago gakoa.

**Azkoitiarrak ezezkoa eman diote zaborrak biltzeko sistema mistoari. Eta orain, zer?**
Gehiengoaren nahia errespetatzea da bidezkoa. Ezin diogu muzinik egin birziklatzeari. Gure betebeharra da. Baina emaitza berdinak lor daitezke bosgarren edukiontziarekin eta herritarrek esan dute zer nahi duten. Ikusiko dugu zer erabakitzen duen Udalak eta galdeketaren emaitza errespetatzen duen.

**Nola doa hautagaien zerrenda?**
Lehenengo postuek izen-abizenak badituzte jada. Alderdikeriak alde batera utzi eta ilusioa, esperientzia eta lanerako gogoa duen jendea da.

**Joseba Egibarrek esan omen zizun legealdi berria amaitzerako EAJn afiliatuko zarela… Hordagoa bota zizun.**
Je, je, je…

**Alkate ikusten al zara?**
Ez banintz ikusiko, ez nukeen urrats hau emango. Baina, noski, herritarrek erabakiko dute hori. Herri honetan indarkeria pairatu dugun urteetan, herria bitan banatuta egon da. Orain, hori aldatzen ari da. Lehen dena kutsatuta zegoen. Orain, kudeaketara dedikatu daitezke Udalean ordezkaritza duten guztiek.

> **“Batzuekin eta besteekin biltzen ari gara, guk ezer proposatu aurretik zer nahi duten azkoitiarrek jakiteko. Edonola ere, elkarrizketa hau aprobetxatu nahi dut ateak eta besoak zabalik ditugula esateko.”**

> **“Lehenengo postuek izen-abizenak badituzte jada. Alderdikeriak alde batera utzi eta ilusioa, esperientzia eta lanerako gogoa duen jendea da.”**



Aunque se tomó su tiempo, su respuesta fue afirmativa cuando le preguntaron si estaría dispuesto a liderar la lista de EAJ/PNV. El partido veía en él valores claros: conocido en Azkoitia y con escarmiento en la gestión. De perfil independiente, dice que se cuela en la escena pública para trabajar por el pueblo. **“Si a eso le llamamos política, vengo a hacer política de otra manera”, añade.**

SABE YA QUIÉNES VAN A FORMAR SU EQUIPO Y YA LLEGARÁ LA HORA DE PRESENTARLOS. AHORA, ENTRE TODOS, ESTÁN ELABORANDO EL BORRADOR DEL PROGRAMA ELECTORAL, DIBUJANDO EL FUTURO DE UN PUEBLO PENSADO POR Y PARA LAS PERSONAS.

**¿Qué le piden los azkoitiarras a un candidato a alcalde?**
No todo el mundo viene a pedir. Muchos se me acercan para darme ánimos. Pero también hay quien se me ha acercado para quejarse. La mayoría critica la dejadez actual. Muchos ven cierto abandono. Los azkoitiarras quieren un municipio ordenado, limpio, dotado de buenos servicios y agradable. Y yo también.

**¿Tiene la dejadez relación con el presupuesto?**
Creo que, ante todo, una gestión eficaz tiene que ver con el trabajo y con la pasión que se le pone al trabajo. Para sacar adelante cosas hace falta inquietud, preocupación, y por qué no decirlo, un punto de testarudez también. Los ciudadanos están hartos de la demagogia política, de la corrupción, de la irresponsabilidad, de discursos interesados… Estar en el gobierno no es hoy un motivo de orgullo. Eso es así. Pero si todos queremos vivir mejor, alguien tiene que hacer un esfuerzo. ¿Qué ocurre cuando en casa nadie pasa la escoba o nadie cambia una bombilla fundida? Y ese esfuerzo tiene que salir de dentro porque la municipal es una tarea de 24 horas. Creo en esas personas que están trabajando para mejorar un municipio. No aparecen en los titulares pero a nivel municipal hay mucha gente comprometida. No tengo ninguna duda. Como en cualquier organización, hay que apelar a la ética, a la solidaridad y al sentido común.

**Según dictan las encuestas, en los 50 últimos años hemos vivido cada vez mejor. Ahora, por primera vez, esa realidad se tambalea.**
Mileuristas no, nos están diciendo que mucha gente es seiscientoseurista. ¿Qué hacemos? La competencia económica municipal es limitada y lo sabemos. Pero hay varia líneas de trabajo a abordar. Por un lado, las instituciones, los centros de formación y las empresas tienen que unirse y sumar sinergias, ayudándose entre sí a ser más competitivos. La innovación tiene que convertirse en productos que se vayan a vender en el mundo y los centros de formación tienen ahí mucho que decir. Además, tenemos que cualificar a la gente para dotar de trabajadores las empresas de aquí. Vivimos de la industria, no nos podemos dormir. Y tenemos que tener en cuenta qué va a pasar a largo plazo. Hoy en día en Azkoitia hay sitio para las empresas que deseen implantarse en Azkoitia. Aquí tenemos a Bernardo Ecenarro y no es fruto de la casualidad. Por lo tanto, el margen de maniobra es limitado pero no por ello, insignificante. Una de las prioridades del Ayuntamiento ha de ser trabajar en la medida de lo posible a favor de la economía y del empleo. Por ejemplo, tenemos un verdadero problema con los idiomas y ya es hora de que el Ayuntamiento se preocupe de ello.

**¿Qué puede hacer un Ayuntamiento para que la gente domine el inglés?**
El inglés, el árabe, el chino…la demanda definirá la oferta. Estamos trabajando este tema y ya hemos mantenido los primeros contactos con los responsables del Gobierno Vasco. Un proyecto que queremos sacar adelante es la apertura de una Escuela Oficial de Idiomas en Azkoitia para toda la comarca. La primera respuesta por parte del departamento de Educación es muy positiva y esperanzadora y no vamos a desaprovechar la oportunidad. Las niñas y niños acuden a academias pero según se van haciendo mayores, las dificultades aumentan. Hay que dar facilidades para aprender idiomas, sencillamente porque hoy en día es un requisito indispensable para encontrar un trabajo. Y el trabajo, además de un salario, nos da dignidad y una oportunidad para el desarrollo personal.

**¿Algún otro proyecto que nos puedas avanzar?**
Estamos trabajando. Hay que poner en un cuadro los diagnósticos, las prioridades, los proyectos, los deseos y los recursos para analizar, desde la realidad, la viabilidad de cada iniciativa. Hay mucho por hacer. Claro que cada uno se fija en sus necesidades. Tenemos a azkoitiarras que no pueden salir de sus pisos porque no tienen ascensor; personas mayores que estarían bien alimentadas, aseadas y protegidas en pisos tutelados también; tenemos que rentabilizar los locales desocupados… Y ¿Por qué no un espacio de coworking para freelances? Queremos todo eso.

**El Ayuntamiento ha adjudicado la redacción de proyecto para ubicar el Centro de Día en el edificio que albergaba la Escuela de Música. ¿Cómo lo ves?**
A primera vista, una fantástica idea. Pero tengo la sensación de que es una decisión que se ha tomado de manera precipitada en la antesala de las elecciones. Nosotros hemos estado con los responsables de la residencia San José para preguntarles cuáles son sus necesidades. Nos han explicado que entre sus prioridades no está el traslado del Centro de Día. Prefieren ampliar la unidad de psicogeriatria en la casa de monjas anexa. El perfil de los usuarios del Centro de Día es de un grado de dependencia elevado y se desplazan en furgoneta. Además, no tienen visitas. Por ley, solo exigen auxiliares. Ahora, en San José también tienen un médico y una enfermera. Además, haría falta un vehículo especial para llevar la comida.

Hay que tener en cuenta que el Centro de Día se llena ahora mismo con usuarios de municipios de alrededor.Sin embargo, tanto las plazas de la residencia como de la unidad de psicogeriatría están todas ocupadas. Esto no quiere decir que en un futuro no tengamos que ampliar el Centro de Día.

Pero tenemos que tener en cuenta varios aspectos. ¿Financiará la Diputación Foral los servicios de otro médico y de otra enfermera? No podemos multiplicar los servicios. Es necesario una reflexión más profunda que abarque las necesidades de las personas mayores desde la globalidad. ¿Qué se hará con los pisos tutelados?, ¿con la asistencia a domicilio? Falta un diagnóstico. Por eso digo que el querer traer el Centro de Día al centro del pueblo es una iniciativa generada desde la ansiedad pre-electoral y puede que no sea la correcta, aunque el fin es bueno.

**¿Tiene el PNV un proyecto propio para Gaztananea, el edificio en el que se ubicaba la Escuela de Música?**
Nuestro proyecto es ubicar una Escuela Oficial de Idiomas donde antes estaba la Escuela de Música. Pero hay más edificios para la Escuela de Idiomas que nosotros impulsaremos, la Casa de Cultura o la Casa Idiakez, por ejemplo.

> **“Reformar la carretera Azkoitia-Zumarraga es una de nuestras prioridades, sin duda.”**



**¿Qué está pasando con la Casa Idiakez-Ederra?**
No se ha hecho nada con la Casa Idiakez-Ederra. Nosotros hemos iniciado una ronda de reuniones con los propietarios. Si el Ayuntamiento no se encarga del tema con responsabilidad, esos andamios se quedarán ahí para siempre. Hemos estado ya con la dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco para analizar el tema y ver qué se puede hacer. Si pasa a ser del Ayuntamiento, hay que dotarlo de una función social. Tiene una muy buena ubicación. Pero antes tenemos que cogerlo con ganas y desbloquear el asunto. Y en ello estamos.

**Llevaste al señor Markel Olano a Aizpurutxo para que viera en qué estado está la carretera.**
Reformar la carretera Azkoitia-Zumarraga es una de nuestras prioridades, sin duda. En la pasada legislatura, tras un proceso de amplia participación, se redactó el proyecto y desde entonces no ha habido ningún avance. Es un proyecto importantísimo para Azkoitia. No sólo porque es la carretera que nos une con el hospital, también porque en Ezkio-Itsaso están ya construyendo la futura estación del TAV. Y cómo no, porque es el acceso a la N-1 y a la AP-1.

Y junto con este proyecto, hay una necesidad acuciante de mejora en el transporte público. Es muy importante que un municipio esté bien comunicado, tanto para facilitar el día a día de la ciudadanía como para mantener el número de habitantes.

**En muchos municipios se han hecho reuniones para votar proyectos a los que se destinarán los presupuestos. Muchos candidatos del PNV también. ¿Estáis contando con los azkoitiarras?**
Sí. Nos estamos reuniendo con unos y con otros para saber qué es lo que quieren antes de que nosotros propongamos nada. En cualquier caso, aprovecho esta entrevista para decir que estamos abiertos.

**Uno de los proyectos más demandados es un parque cubierto y ya se contempla en el presupuesto.**
Hay una partida para ello, sí. Lo que no conocemos es qué contenido se le va a dar a ese espacio cubierto. ¿Habrá una zona de juegos para niños?, ¿será un parque donde los mayores hagan ejercicio físico?, ¿qué se va a hacer? Ahí está la cuestión.

**Los azkoitiarras han rechazado el sistema mixto. Y ahora, ¿qué?**
Lo justo es respetar el deseo de la mayoría. Tenemos que reciclar, es nuestro deber. Pero podemos obtener los mismos resultados con el quinto contenedor y la ciudadanía ya se ha pronunciado. Ya veremos qué decisiones toma el Ayuntamiento y si respeta el resultado de la consulta.

**¿Cómo va la lista de candidatos?**
Los primeros puestos tienen ya nombres y apellidos. Es gente que, dejando de lado los partidismos, está ilusionada y con ganas de trabajar.

**Joseba Egibar cree que serás un afiliado más antes de acabar la próxima legislatura. ¡Menudo órdago!**
Je, je, je…

**¿Te ves alcalde de Azkoitia?**
Si no me viera, no hubiera dado este paso. Por supuesto, es una decisión del pueblo de Azkoitia. Durante los años en los que hemos sufrido la violencia, el pueblo ha estado dividido en dos. Ahora, eso está cambiando. Antes, todo estaba contaminado, Ahora, los representantes municipales se pueden dedicar a la gestión.